

UNIBERTSITATEAK AITORTZEKO AURKEZTUTAKO MEMORIAREN EBALUAZIO-TXOSTENA

OHARRA: Txosten honen egitura, maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuak unibertsitateak sortu, aitortu eta baimentzeko exijitzen dituen betekizunetara eta Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legean exijitzen direnetara egokitzen da eta betekizun horiek hitzez hitz errepikatzen ditu.

1. DIMENTSIOA. Titulazio ofizialen gutxieneko eskaintza akademiko bat izatea.

Unibertsitateek gutxienez ere graduako eta masterreko zortzi titulu ofizial lortzera bideratutako irakaskuntza-
eskaintza izan beharko dute. Eskaintza akademiko horrek koherentea izan beharko du jakintza-adar bakoitzaren
barnean eta bere osotasunean.

Unibertsitateak jakintza-adar bakoitzeko titulazioen garapen-plan bat aurkeztu behar du, gutxienez ere honako
hau barnean hartuz: titulazioen zerrenda; eskaini nahi diren unibertsitate-plazen guztizko kopuruaren
aurreikuspena, kurtso bakoitzean; jarduera horiek hasiko diren ikasturte akademikoa eta irakaskuntzen ezarpen
osorako eta dagozkion zentroak funtzionamenduan jartzeko egutegia, baita haiek garatzeko espezifikoki eskura
dauden bitartekoak ere.

Era berean, titulazio bakoitzaren ezarpen indibiduala unibertsitateko ikasketa ofizialak antolatzen dituen urriaren
29ko 1393/2007 Errege Dekretuan aurreikusita dagoen ikasketa-planen ziurtapen- eta egiaztatze-prozeduraren
baldintzapean egongo da.

EZ DU INFORMAZIOARIK AURKEZTEN	INFORMAZIO OSATU GABEA	INFORMAZIO OSATUA
DIMENTSIOAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:		

2. DIMENTSIONA. Ikerketa-programazio egokia izatea.

Unibertsitateek ikerketa-jardueraren garapena sustatu beharko dute. Beraz, ikerketa-jardueraren urte anitzeko programazio bat aurkeztu behar da unibertsitate berria osatzen duten titulazio ofizialekin lotura duten zientzia-arloetan, eta hainbat estrategia gaineratu beharko dituzte, besteak beste talentu zientifikoa txertatzeko, azpiegitura zientifiko eta teknikoak eskuratu, erabili eta/edo eraikitzeko, eskualde, estatu eta nazioarte mailako ikerketa-proiektu lehiakorretan parte hartzeko, eta produkzio-sektorearekin I+G+Baren alorrean lankidetzan jarduteko, haien ebaluazioan ezarriko diren adierazleak barnean hartuz.

EZ DU INFORMAZIORIK AURKEZTEN	INFORMAZIO OSATU GABEA	INFORMAZIO OSATUA
DIMENTSIONAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:		

3. DIMENTSIONA. Behar adina irakasle eta ikertzaile izatea, eta prestakuntza egokiarekin.

Unibertsitate bakoitzeko irakasle eta ikertzaileen guztizko kopurua ezin izango da izan unibertsitate-irakaskuntza ofizialetan matrikulatutako ikasleen guztizko kopuruaren 1/25 baino txikiagoa.

Ratio hori lanaldi osoko dedikazio-erregimenean edo lanaldi partzialari dagokion baliokidean konputatutako irakasle eta ikertzaileei dagokie. Ratioa modulatu ahal izango da unibertsitateak irakaskuntzak modalitate ez-presentzian ematen dituenean, eta 1/50etik 1/100era bitartekoa izan daiteke, titulazioen esperimentalitate-mailaren eta izaera erdipresentzial handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

Unibertsitateetan irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak egiten dituzten langileen osaera honako hau izango da gutxienez:

- a) Doktoreen ehuneko berrogeita hamar graduko titulu bat lortzera bideratutako irakaskuntza guztietarako.

- b) Doktoreen ehuneko hirurogeita hamar Masterreko titulu bat lortzera bideratutako irakaskuntza guztietarako.
- c) Unibertsitatean doktorego-irakaskuntzak ematen dituzten irakasle guztiek doktore-titulua eduki behar dute.

Xede horri begira, irakasleen kopuru osoa zenbatzeko, lanaldi osoan jarduten duten irakasleen kopurua hartuko da aintzat. Halaber, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren hamabigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraikiz, Osasun Zientzien eremuan unibertsitateen eta osasun-erakundeen arteko kontzertuetan irakasle elkartuei dagokienez finkatutako plaza kopurua ez da kontuan hartuko artikulua honetan adierazitako ehunekoen ondorioetarako.

Doktore-titulurik ez duten irakasleek lizentziadun, arkitekto, ingeniari edo graduatuaren titulua edo baliokidea eduki beharko dute gutxienez, Unibertsitate Kontseiluak irakaskuntza-jarduera egingo den jakintza-arloetarako, oro har, diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari teknikoaren titulua nahikoa dela ezartzen duenean izan ezik. Kasu horretan, eta arlo espezifiko horietan egin beharreko jarduerarako, nahikoa izango da irakasleek azken titulu horietakoren bat edukitzea.

Unibertsitateek, nolana ere, irakasle guztien ehuneko hirurogeik gutxienez beren funtzioak lanaldi osoko dedikazio-erregimenean beteko dituztela bermatu beharko dute.

Betekizun horiek egiaztatzeko, unibertsitateek irakasleen eta ikertzaileen plantilla eta irakaskuntzak guztiz ezarri arte izango duen urteko gehikuntzaren aurreikuspena aurkeztu beharko dute jardueraren hasieran.

EZ DU INFORMAZIORIK AURKEZTEN	INFORMAZIO OSATU GABEA	INFORMAZIO OSATUA
DIMENTSIOAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:		

4. DIMENTSIOA. Beren funtzioak betetzeko instalazio, bitarteko eta baliabide egokiak izatea.

Unibertsitateek, gutxienez ere, beren irakaskuntza- eta ikerketa-funtzioak garatzeko azpiegitura eta baliabide material egokiak izan beharko dituzte, irakaskuntzen mota eta matrikulatutako ikasleen kopurua kontuan izanik, baldintza funtzional egokiak betez eta irakaskuntza- nahiz ikerketa-jarduerak egin daitezen ahalbidetuz. Edozein kasutan, honako hau izan beharko dute:

4) Irakaskuntza- eta ikerketa-guneak. Horien kopurua eta azalera, aurreikuspenen arabera aldi berean erabiliko dituzten ikasleen kopuruaren arabera izango dira. I. eranskinak, instalazioen egokitasuna balioesteko gutxienerako moduluak biltzen ditu.

b) Ikasteko eta Ikertzeko Baliabideen Zentroa (IIBZ). Horretarako bideratutako eraikinak edo dagozkion zerbitzu fisiko edo birtualek, unibertsitateko liburutegi-zerbitzuak barnean hartuko dituztenek, gutxienez ere matrikulatutako ikasleen guztizko kopuruaren ehuneko hamarrek aldi berean erabili ahal izatea ahalbidetu beharko dute.

c) Informatika-ekipamendua: Sarerako konektagarritasun egokia bermatzen duten gela eta zerbitzu orokorrak, wifi-gunea sortuz eta ikasleentzat ordenagailu kopuru egokia eskainiz, baita unibertsitate-komunitatearentzat irakaskuntza- eta ikerketa-betekizunetarako sarbidea ere web-zerbitzuen bitartez.

Osasun Zientzien eremuko irakaskuntzen kasuan, II. eranskinean exijentzia bereziak ezartzen dira.

Edozein kasutan, unibertsitateko instalazioek lan-arriskuen prebentziorako baldintzak eta indarrean dagoen legeriak exijitzen dituen eskakizun akustikoak eta bizigarritasun-eskakizunak bete beharko dituzte. Era berean, eta araudi aplikagarrian xedatutakoa kontuan izanik, desgaitasuna duten pertsonen sarbidea eta mugikortasuna ahalbidetzen duten baldintza arkitektonikoak izan beharko dituzte.

EZ DU INFORMAZIORIK AURKEZTEN	INFORMAZIO OSATU GABEA	INFORMAZIO OSATUA
DIMENTSIOAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:		

5. DIMENTSIONA. Zerbitzua emango dela eta beren jarduerari eutsiko dietela bermatzea.

Unibertsitateek, beren programazioan ezarritako helburu akademikoak eta ikerketa-helburuak lortzeko beharrezkoa den denboraz beren jarduerari eutsiko dietela bermatu beharko dute. Horretarako, unibertsitate publikoak sortzeko edo unibertsitate pribatuak aitortzeko, eta ondoren horiek baimentzeko, honako hau aurkeztu beharko da:

a) Unibertsitate pribatuek beren finantzaketa ekonomikoa ziurtatuko duten bermeak aurkeztu beharko dituzte, eta berme horiek eskaintako tituluen eta matrikulatutako ikasleen kopuruarekiko proportzionalak izango dira eta irakaskuntza-eskaintzaren arabera kalkulatuko dira; bestalde, bideragarritasun- eta itxiera-plan bat aurkeztu beharko dute beren jarduera bideraezina den kasurako.

b) Unibertsitatea eta bere zentroetako bakoitza funtzionamenduan mantentzeko konpromisoa, gutxienez ere bertan ikasketak hasi dituzten ikasleei beren ikasketak aprobetxamendu akademiko nahikoarekin amaitzea ahalbidetzen dieten denboraz. Unibertsitateek, beraz, ikasle horiek ikasketak amaituko dituztela bermatzen duten mekanismoak aurreikusi beharko dituzte, hala emandako titulazioren bat desagertzen den kasuan nola unibertsitateak hartutako erabakiz edo tituluaren egiaztapena ez berritzeagatik.

Atal honetan, kontuan izan behar da Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legearen 108. artikulua publikoak ez diren unibertsitateentzat honako hau exijitzen duela: *“Unibertsitatea sortu ahal izateko, diru-bermea eskatuko da, eta ezingo da izan hiru milioi eurotik beherakoa. Unibertsitatearen sustatzailea merkataritza-sozietatea bada, ez da beharrezkoa izango diru-bermerik jartzea, betiere eratze-agirian ageri den sozietatearen hasierako kapitala hiru milioi eurotik beherakoa ez bada eta bazkide bakoitzari dagokion zatia zehaztuta agertzen bada.*

Hasieran ordaindutako sozietatearen kapitala ezin izango da izan kapital osoaren erdia baino gutxiago, eta, edonola ere, hasierako jarduerak hitzartutako eran gauzatzeko bestekoa izan beharko du”.

EZ DU INFORMAZIOARIK AURKEZTEN	INFORMAZIO OSATU GABEA	INFORMAZIO OSATUA
DIMENTSIONAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:		

6. DIMENTSIONA. Antolaketa eta egitura egokia izatea.

Estatutuek edo, unibertsitate pribatuen kasuan, unibertsitatearen jarduera eta autonomia arautu behar duten antolaketa- eta funtzionamendu-arauek, bat etorri behar dute printzipio konstituzionalekin, eta katedra-, ikerketa- eta ikasketa-askatasunetan gauzatzen den askatasun akademikoko printzipioa osorik eta modu eraginkorrean errespetatu eta bermatu behar dute.

Estatutuek eta Antolaketa eta Funtzionamendu Arauek abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan eta unibertsitatearen alorreko gainerako araudian bildutako aurreikuspenak jaso beharko dituzte, eta gutxienez ere honako hau:

- a) Unibertsitatearen izaera, funtzioak eta eskumena.
- b) Araubide juridikoa, langileei buruzkoa eta ekonomiko-finantzarioa.
- c) Egitura.
- d) Gobernu- eta ordezkari-organak.
- B) Ikasleen eskubideak eta betebeharrak.
- f) Aldezlea hautatu edo izendatzeko prozedura, bere agintaldiaren iraupena eta dedikazioa, baita funtzionamendu-erregimena ere.
- g) Diziplina-araubidea.
- h) Unibertsitatea ezabatzeko edo kentzeko arrazoiak, eta horien artean 420/2015 Errege Dekretuaren 13. artikulua aipatzen duen neurri zuzentzaileen plana ez aurkeztea edo ez onartzea egongo da.
- i) Garrantzitsutzat jotzen den beste edozein xedapen, baldin eta ez bada abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren eta unibertsitatearen alorreko gainerako araudien aurkakoa.

Atal honetan aurreikusitako betekizunak egiaztatzeko xedez, jarduera hasten den unean unibertsitateek honako hau aurkeztu beharko dute:

- a) Arau horiek edo beren Estatutuak behin betiko onartu arte indarrean egongo diren egitura eta antolaketa- eta funtzionamendu-arauek.

b) Unibertsitatearen zentroen kokalekuaren erabakia eta dagokion autonomia-erkidegoaren lurralde-eremuko kokapena, memoria justifikatzailearekin eta egun dauden eta jarduerak hasteko eta irakaskuntzak erabat ezarri arte proiektatuta dauden eraikinak eta instalazioak zehaztuz.

EZ DU INFORMAZIOARIK AURKEZTEN	INFORMAZIO OSATU GABEA	INFORMAZIO OSATUA
DIMENTSIOAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:		

TXOSTENAREN ONDORIOAK:

420/2015 ED, I. ERANSKINA

Irakaskuntza- eta ikerketa-guneen gutxieneko moduluak

Horien kopurua eta azalera, aurreikuspenen arabera aldi berean erabiliko dituzten ikasleen kopuruaren arabera izango dira, honako modulu hauek kontuan izanik:

a) Ikasgelak:

Berrogei ikasle arte: metro 1 eta berrogeita hamar zentimetro karratu ikasle bakoitzeko.

Berrogei ikasletik gora: metro 1 eta hogeita bost zentimetro karratu ikasle bakoitzeko.

b) Irakaskuntza-laboretegiak: bost metro karratu irakaskuntza-talde bati esleitutako ikasle bakoitzeko. Modulu hori egokitu ahal izango da ematen dituzten irakaskuntza ofizialei dagozkien irakaskuntza praktikoko beharrezan arabera. Gune horretan jantziak eta laboretegi babeserako arropak zaintzeko eremu edo altzariren bat erreserbatu beharko da.

Laboretegi horiek ikasgelekiko eta tutoretza-aretoekiko eremu independenteak izan beharko dute.

c) Ikerketa-laboretegiak: 10 eta 15 metro karratu artean irakasle edo ikertzaile bakoitzeko. Laboretegi horiek ikasleen igarobidetik bananduta egon behar dute eta ez dira irakaskuntza-lanetarako partekatu behar.

Irakaskuntza eta ikerketarako guneek irakaskuntza- eta ikaskuntza-modalitate desberdinetara egokitzeko beharrezko malgutasun espaziala eta altzari-malgutasuna izan beharko dute.

Irakasleen bulegoak informatika- eta komunikazio-ekipamendu egokiez hornituta egongo dira.

420/2015 ED, II. ERANSKINA

Eskakizun bereziak Osasun Zientzien eremuko irakaskuntzetarako:

a) Medikuntza, Erizaintza eta Fisioterapiako irakaskuntzetan honako hau bermatu beharko da:

1.- Unibertsitateek gutxienez ere ospitale bat eta Lehen Arretako hiru zentro izan beharko dituzte (titulartasun publikokoak edo pribatukoak), itun batean oinarrituz unibertsitate publikoen kasuan edo hitzarmen batean oinarrituz unibertsitate pribatuen kasuan.

2.- Erakunde sanitarioek sanitatearen eta unibertsitateen alorrean eskumenak dituzten Ministerioek elkarrekin ezartzen dituzten betekizunak bete beharko dituzte (baliabide pertsonalen eta materialen zuzkidura).

3.- Itunak edo hitzarmenak, ituntzen diren erakunde sanitarioen zerbitzuak adieraziko dituzte, baita horiekin erlazionatzen diren unibertsitateko departamentu edo unitateak ere.

4.- «Unibertsitate-ospitalea» izena erabiliko da itunak ospitalea bere osotasunean aipatzen duenean edo bere zerbitzu eta/edo unitate asistentzialen gehiengoa biltzen duenean; soilik zerbitzu batzuk ituntzen diren kasuan, «unibertsitateari lotutako ospitalea» adieraziko da. Gauza bera aplikatuko zaie Lehen Arretako zentroeiei.

b) Odontologia, Albaitaritza eta Farmaziako irakaskuntzetarako, eta elementu asistentzialak behar dituzten osasunaren eremuko beste irakaskuntza batzuetarako, beharrezko bitarteko kliniko baliagarritasuna bermatu beharko da, eta berdin dio unibertsitatearenak badira (Odontologiako, Podologiako, Psikologiako unibertsitate-klinikak, albaitaritza-ospitale klinikoak eta abar) edo Administrazio eskudunak egiaztatutako asistentzia-zerbitzu horiek dituzten erakunde publiko edo pribatuekin egindako hitzarmenen bitartez lortzen badira.

420/2015 ED, III. ERANSKINA

Unibertsitateak sortzeko/aitortzeko eta ondoren baimentzeko espedienterako justifikazio-dokumentazioa:

- a) Memoria bat, bertan adieraziz bere helburu akademikoak eta abenduaren 21eko 6/2001 lege Organikoaren 1. artikuluan ezarritako unibertsitatearen funtzioak beteko direla bermatzen duten irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren programazioa.
- b) 420/2015 Errege Dekretuaren 9. artikulua aipatzen duen jarduera-bermearen justifikazio-dokumentazioa.
- c) 420/2015 Errege Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako antolaketa- eta funtzionamendu-betekizunak egiaztatzen dituen dokumentazioa.
- d) Jardueraren hasieran dagoen irakasle- eta ikertzaile-plantillaren justifikazioa, 420/2015 Errege Dekretuaren 7.6 artikuluan aurreikusitako terminoetan.
- e) Jardueraren hasieran dagoen administrazio eta zerbitzuetako langile-plantillaren justifikazioa, eta dagozkion irakaskuntzak guztiz ezarri arte izango duen urteko gehikuntzaren aurreikuspena.
- f) Unibertsitate berriak jardueren hasieran emango dituen irakaskuntzen eta izango dituen zentroyen kopuruaren justifikazioa; ikasturtez ikasturte eta erabateko errendimendua lortu arte estali nahi diren unibertsitate-plazen guztizko kopuruaren aurreikuspena; aipatu jarduerak hasiko diren ikasturte akademikoa; eta irakaskuntzak osorik ezartzeko eta dagozkion zentroak funtzionamenduan jartzeko egutegia.
- g) Unibertsitate berrian dauden titulazio ofizialekin lotura duten zientzia-arloetako helburuen eta ikerketa-programen justifikazioa, baita helburu horiek ziurtatzen dituzten egitura espezifikokoena ere.
- h) Bere irakaskuntza- eta ikerketa-funtzioen garapenerako azpiegitura eta bitarteko material egokiak eta nahikoak izatearen justifikazioa.

Unibertsitate pribatuek nortasun juridiko propioa dutela egiaztatzen beharko dute, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 2.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.